

ARRASATE

PRESS

Arrasate 1989ko Otsailak 3, 9 .zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean



Arrasateko Gaztetxea

Gaztetxea konpontzeke dagoen arazoa

Urtarrilaren 21ean Gaztetxean egitekoa zen kontzertua Udalak debekatu ondoren, pertsona talde batek berau burutzea galerazi zuen. Honetarako argi-
indarraren kableak moztu zituen. Kontzertura joandako pertsona talde batek,
debeku horren aurrean beren ezinegona azaldu asmoz, manifestazio antzeko
bat egin zuen. Istilu hauek direla eta, arrasatear guztion ahotan dago azken
egunotan Gaztetxea. Batzuk Udalari emango diote arrazoia, beste batzuk
AGAkoei. Dena den arazoa ez da itxuraz dirudien bezain sinplea. Gaztetxea
Gurean egotean, bertan sortzen diren zaratak inguruko bizilagunek sofritzen
dituzte, beren egoera jasan ezina dela azaltzen dutelarik. Bestalde Udaleko
talde politiko ezberdinak gai honen inguruan eritzi ezberdinekoak dira.
Beraz, konpobidea ez da erraza izango.

(10. or.)

ORAIN ETA HEMEN

— Arrasaten estazio meteorologi-
koa ezartzeko asmoa.

Kokapen aproposa litzatekeela
ikusiz, Eusko Jurlaitzaren Garraio
Zuzendaritzak estazio meteorologi-
koa ezartzeko baimena eskatu du.

(7. or.)

BERBAROA

— Fray Rufino: "Arantzazun
gosie pasau gaixuen, gosie
ikaragarrixen"

(12. or.)

ELKARRIZKETA

— Julian Balanzategi, Arrasateko
ELAko liberatuak: "Langabezia ez
da epe laburrean konponduko".

(17. or.)

KIROLAK

— Podiuma: Jose Antonio Gay,
atleta. Iturripen egindako korrikala-
ria, 18 urterekin Euskadiko txapel-
duna 400 m.takoan.

(19.or.)



HOTZ - BERO

**zibro
kamín TURBO**

Kanpantorpea, 2

Tfnoa: 79 70 98

79 67 54

ARRASATE

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak:

Arrasateko Eskualde-Ospitalea	795300
Igualatorioa	790500
Santa Agedako ospitalea	
(gizonak)	793900
(emakumeak)	794411
Buru osasunerako zentrua	799011

Gurutze gorria:

Bergara	765576
---------------	--------

DYA

Antzuola	766291
----------------	--------

Anbulatorioak

Arrasate	791357
.....	799722
Oñati	780852
Eskoriatza	798896
Aretxabaleta	797458
Aramaio	(945) 455116

Anbulantziak:

Gipuzkoako anbulantziak	458744
-------------------------------	--------

Udaltzaingoa:

Oñati	780411
Bergara	761469
Arrasate	791439
Aretxabaleta	791052
Eskoriatza	790322

Ertzantza:

Arrasate	797199
Bergara	

Suhiltzaileak:

Udal taldea	790900
Udal taldeko suhiltzaile	
burua	792072
Zubillagako Eskualde Parkea	782800

Matxurak:

Urak (udal zerbitzua)	790900
Elektrizitatea (Iberduero)	790581

Garraioak:

Taxiak	791222
P.E.S.A.	791419

Hirugarren adinarentzako zentruak:

Iturbide Egoitza	797211
Abaroa jubilatuen egoitza	798157

Kontsumitzailearentzako informazioa:

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta	
Erabiltzaileen Elkarteak	798777

3 OSTIRALA

7etan, Hitzaldia Monterronen: "Gaztetxea" (AGA, Udal Gazte Komisioko Lehendakaria eta Gazte-Dinamizatzailea).

- Zinea: Alai: "Los alegres pfcaros".
- Novedades, Bergara: "Calor Rojo".
- Goardiako farmazia: Santiago Español, Iturriotz.

4 LARUNBATA

Goizeko 10etan, Hitzaldia UNEDen, Bergara: "Aión, Kronos eta Kairós: denboraren kontzepzioa Grezia klasikoan" (Antonio Campillo)

- Haratuzteak:
- 11etan, Sebero Altuben, Txorimaloen Lehiaketa.
- 6etan, Monterron ondoan, hurrentzako sokamuturra.
- 9,30-2, Zomorroen Dantzaldia, "Gaurko Berni" taldearekin.
- 10,30etan: Amayan, antzerki saioa.
- 12: Monterron ondoan, nagusientzako sokamuturra.

- 7etan, Sebero Altuben, manifestazioa: "Udaletxe, qué pasa con el Gaztetxe"(AGA).
- 10,30etan, Amayan Ionescoren "La cantante calva" (Teatro Estudio de San Sebastián).

- Zinea: Alai: "Cocodrilo Dundee II".
- Novedades, Bergara: "Loca".
- Goardiako farmazia: M. Corcuera, Elcano, 2.
- Zinea: Alai: "Cocodrilo Dundee II".

- Novedades, Bergara: "Loca".

5 IGANDEA

Zinea: Alai: "Cocodrilo Dundee II".

- Novedades, Bergara: "Loca".
- Haratuzteak:
- 12etan, Sebero Altuben hau-

rrentzako antzerkia.

6,30-10: Sebero Altuben, dantzaldia "Eguzki" taldearekin.
8,30: Sebero Altuben, Suzko Zezena.

- Goardiako farmazia: J.A. Irizar, Erguin

6 ASTELEHENA

Zinea: Alai: "Cocodrilo Dundee II"

Novedades, Bergara: "Calor Rojo"

- Goardiako farmazia: Amezua, S. Marina, 32.

7 ASTEARTEA

Zinea: Alai: "Cocodrilo Dundee II"

- Haratuzteak:
- 4,45etan, Haurren Zomorro Desfilea Samasiku fanfarrearekin.
- 6,30etan: Haurren Zomorro Dantzaldia Samasiku fanfarrearekin.

7etan: Udal ludotekan haurrentzako jaiak.

9,30-2: Viteriko aparkalekuan "Borraskas" taldearekin dantzaldia.

1,30: Sardinaren ehortzea.
12,30: Zomorro Lehiaketaren sari-banaketa.

- Goardiako farmazia: Aurora Ruiz, Magdalena.

8 ASTEAZKENA

7,30: Oñatiko Kultur Etxean, Hitzaldia: "Las drogas en Euskadi: el dominio de la hipocresía" (Luis Barrios). Antolatzailea: EMK-Kemen.

- Goardiako farmazia: A. M. Morales, San Andres.

9 OSTEGUNA

8,30: Amayan, Euskadiko Orkestaren Kontzertua.

- Goardiako farmazia: Ruiz Torre, Ferrerías, 1.

ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI
BADUZU EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN

IZEN-DEITURAK.....

HELBIDEA.....

HERRIA.....

Zeharkale Estalia 1, 1. b -ARRASATE- Tfnoa:79 71 64

ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)
Zeharkale Estalia, 1-1. B
20500-ARRASATE -TF.797164

Laguntzailea: Arrasateko Udala

Zuzendaria: Joxe Aranzabal

Erredakzioa: Juan Luis Azkarate
Bego Zubia

Publizitatea: Amaia Garro

Maketazioa: Goio Arana

Erredakzio

-kontseilua: Jose Felix Diaz
de Tuesta
Harry Zاراia
Iñaki Mendiguren

Kolaboratzaileak: Josemari Velez
de Mendizabal
Mikel Irizar
Karmele Zuazubiskar
Patxi Montero
Juan Martin Elexpuru
Mikel Arregi
Eukeni Olabarrieta
Arantxa Lizaso
Juanito Leibar
Estepan Plazaola

Inprimategia: Gertu Koop. E.

Banaketa: Orkatz Skaut-Taldea


Harpidetzak: Zeharkale Estalia, 1-
1b. Tfnoa. 797164

Copyright: ARRASATE PRESS

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN:

ARRASATE PRESSEk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.



Dali, feniziarra

“Tate Gallery”ra sartu nintzen, lehen aldiz, handik artista baten gaineko ideia guztiz desberdinaz irtengo nintzela sumatu barik. Salvador Dali bizidunen artetik joan zaigu eta hirurogeigarrenetako dekada amaieran izan nuen esperientzia hura gogoratu dut.

TV-rik ez geneukala, munduko zenbait albiste iristen zitzaizkigun, irudi gisa, NO-DO ospetsuaren bitartez. Nire adineko askok pantaila haundiari esker ezagutu genuen pertsonaia aldrebes hura, orain Parisen gero Madrilen eta hurrengoan New Yorken, sudurpean bibote parragarria eta buruan katalandar barretina zerakusatzala. Bere buruari “cáus-ti-co, re-vo-lu-cio-na-rio, masó-ni-co, je-su-f-ti-co” eta horren gisako mugaketa ulertezinak egiten zizkion gizon harek ez zuen gugandikako errespetua irabazi. Txotxoloflautatzat geneukan.

Ba, berriro diot, Londoneko galeria hartara egindako nire lehen bisitan begi aurrean omen neukan oihala erori zitzaidan eta gizaki haren pailazo bat baino gehiago zegoela ohartu nintzen. Harrez geroztik, Daliri buruzko nire eritzia guztiz bestelakoa izan da, frankistar erregimeneko albistegi antzugarri harek nigan utzi zuen irudia, zorionez, zeharo ezabatua geratu zelarik. Dena dela, gogora dezagun, Salva-

dor Dali surrealismoaren azkenetako espezimen bitxia izateaz gainera, feniziarren ondorengoa genuen. Eta horrek bere produktua nola edo hala saltzera behartzen zuen.

Maixuki bete zuen Dalik saltzailer alderdi hori eta bere ibilera sasi-narkikoan ongi neurtu zituen eman beharreko urratsak. Garcia Lorca, Giacometti, Cocteau, eta horien moduko intelektual haundi askoren begirunea bereganatu zuen artistak baliozko zerbait zeraman barruan, guri irriparra eta, baita sarri ere, hasarrea eragiten zizkiguten ateraldietatik at.

Irudizko lengoian bere burua ezhilkortzat azaltzen zigun artista betierekotasunaren erresumara heldu da, azkenik, gorpua Dali Museoan geratu bada ere. Dali “di-vino”ak bere errautsak Olinpoko jainkoei eskaini beharrean pekatarien artean utzi nahi izan ditu hezurrak. Azkenengo unerarte guri adarra jotzen... “Milleten Angelusen gaineko mito tragikoa” liburuxkan, gu zorabiatu nahian nonbait, jotzen zigun bezalaxe: “Del constreñimiento ferroz de los coeficientes de elasticidad y de la viscosidad jesuíticas por las estructuras éticas implacables de las tablas de la moral nacen las grandes obras de arte”.

Izorra hadi!

Josemari Velez de Mendizabal



CHASYR 1879 ASEGURUAK

GASTEIZ

M. Iradier 15. 233003
Ordezkaritza

ARRASATE

E. Gerrikabeitia 79 74 35
Andoni Conde. 79 60 08

EIBAR

I. Gerrikabeitia 71 21 39
Isasi 17, 1., esk.



ARRATE IRRATIA, S.A.
FM - 101,5

Goizeko 9etatik
Gauko 11ak arte
Irratsaio denak EUSKARAZ

ARRATE IRRATIA
EUSKAL SINTONIA

GIROA AROTZA

ZABALDU BERRIA DUGU !!

Iturriotz, 14 ARRASATE



gili gili

Iturriotz, 9 Tfnoa: 799457

ASA ASEGURUAK

Zeuren ezertara behartu gabe, aseguru mota guztien informazioa emango dizugu, zure beharretarako egokiena zein den adieraziz.

- * Etxeko Arrisku Orotarakoa
- * Auzo-Komunitateko Arrisku Orotarakoa
- * Saltokietako Arrisku Orotarakoa
- * Enpresa Txiki eta Erdi mailatakoa
- * Pentsio-Fondoak
- * Jubilazio-Planak
- * Istripuak
- * Bizia
- * Automobilak
- * Erantzukizun Zibila

... etab

ZURE ESANETARA GAUZKAZU!!

Maalako Errabala, 33-Beheazpia
Tfnoa. 796900

ARRASATE

“Arrasate Press”eko lagunak:

Zuen aldizkaria kaleratzen hasi zenetik arretaz jarraitu dugu. Gure herriko egunkari bat ateratzeko ideari ondo deritzogu. Exito bat izatea espero dugu.

Logikoa den bezala, aldizkari honetan gauza batzuk aldatuko genituzke. Guretzat egunkariak kultura gehiegi dauka, arazo erreal gehiago eduki beharko litzuzke, gure herrian gauza ugari gertatzen da eta.

Informazio dena ona da, eta uste dugu hemen ez dela ezer sobratzen. Kotileo batzuk badaude baina irakurri nahi ez duenak ez dezala irakurri. Informazioa ematerakoan beste era batetako informazioa ere kontutan izan behar dela uste dugu, esate baterako auzoetako zenbait berri bitxi.

Hemengo batzuei ez zaie aldizkaria heltzen etxera. Eta uste dugu hori konpon daitekeela.

Eta bukatzeko animatzen zaituztegu lan horretan jarrai dezazuen.

Ikasle lagun talde batek

Kaixo!

Arrasate Press aldizkaria irakurri dugu eta, gure ustez, ez da espero genuen bezain ona. Aldizkari bat euskaraz idatzita egoteari ondo deritzogu, baina guretzat beste gauza batzu ere jarri ahal dituzue. Adibidez: erreportai gehiago eta hobeak, komikiak eta kritika batzu herriko funtzionamenduari buruz. Eta batez ere informazio gehiago gazteentzat, jende nagusiari zuzenduta dagoela uste bait dugu.

Gure asmoa eritzia ematea izan da, beraz kontutan hartuko duzue-lakoan.

Hurrengo arte

AEKko lagunak

Beti obretan!

Orain azaltzera noakizuen ez dut uste inori arraro egingo zaionik. Izan ere, gauza bat dela bestea dela, kaleetan behin eta berriro egiten ari diren obrei buruz ari naiz, azkenengo NATURGASEk Arrasateko zenbait lekutan gas naturala sartzeko egingo dituenak izanik. Azkenengo obra horiek aprobetxatuz, salatu nahi nuke kaleak gero eta txartoago daudela. Ez al da nahikoa kaleek berez eta gure axolagabeheriaren ondorioz eduki ohi duten itxura, orain Arrasateko Udalak, bere asmo onez noski, egin nahi dituen obrekin egoera txarragoan jartzeko?

Nik uste, gauzak egin aurretik ondo planifikatu beharra dagoela eta honekin esan nahi dut, obra bat bestearen ostean egin beharrean denak batera egitea hobe litzatekeela. Egia esan, ez naiz neu bakarrik hala pentsatzen duena, jende askok ere neuk bezala pentsatzen du, eta horregatik, ausarta izatea bada ere, guzti horien eta nire partez zenbait kexa azaldu nahi nuke.

Alde batetik, eta lehen aipatu dudana bezala, penagarrizkoa da gaur egun Arrasateko kaleak aurkitzen diren egoera, hau da, espalo guztiak altxatuta eta eskonbroz josita, eta hori nahiko ez bada, egoera horren ondorioz ezinezkoa dugu kale horietan bizi garenok, pertsona nagusiek batez ere, paseo bat lasai egin lurre-ra jausteko arriskuan egon barik. Ez dut, inola ere, zalantzan jartzen obra horien premia, bakarrik planteatu nahi nuke obra guzti horiek herritarrek gutxiago molestatu gabe egin ahal daitezkeen ala ez. Bestalde, etxe barruan ere jasan behar dugu, batez ere etxeoandre garenok, obra horiek sortzen duten hautsa eta zinkeria garbitu beharra.

Beraz, lan horiek gure onerako direla jakin badakigun arren, karta honekin eskatu nahi nieke herriko obrak planifikatzen dituztenei, hemendik aurrera herritarrok jasan behar izaten duguna ere kontutan har dezatela eta, beraz, ahal dela, denei ahalik eta molestia gutxien sortuz egin ditzatela.

E. B.

Zer iruditzen zaizkizu Arrasateko haratuzteak? Mozorrotuko zara?



Jesus Mari Gallastegi
(fruta-saltzailea)

— Ongi daudela uste dut, urtetik urtera hobeto daude. Dena den, aurrekontuak handitu beharko liratekeela uste dut ekintza gehiago egin ahal izateko.


— Bai urtero mozorrotzen naiz, aurtentzen “sorpresa” jantziko naiz.



Ainhoa Lasa
(ikaslea)

— Ondo daudela uste dut, martxa asko dago eta.


— Mexikanoz jantziko naiz.



Marian Porcel
(ikaslea)

— Jende asko janzten da eta ondo ikusten ditut kamabalak.

— Jantziko naiz, baina sorpresa izango denez, ez dizut esango.



Josu Aldai
(ikaslea)

— Ondo daudela uste dut, gu ibiltzen garen planerako ondo daude, gainera gero eta jende gehiago mozorrotzen da.

— Gaez baliteke mozorrotzea, oraindik ez dut erabaki, orain arte beti mozorrotu izan naiz.

H i r e a z k e n t r a g o a

O T A M E N D I n

Iegarreko pabiloia

Arrasate

KAJOI TABERNA

erdiko kale 22
Tfnoa: 79 32 27



Ekaitz

GOSARIAK

Goizeko 7etatik zabalik,
astelehenetik ostiralera

Otalora, z/g.

Tfnoa: 79 37 76

**MONTE
TABERNA**

Maalako Errebala, 11
Tfnoa: 79 20 56



SOKOA

Iturriotz kalea, 12

Tfnoa: 79 96 25

Arrasate

**I
R
A
T
I**


Ferrerias kalea
Tfnoa: 79 71 80

Langabetuei buruzko datu-bilketa

Udalak, Enplegu-Batzordearen bidez, langabetuei zuzenduriko galdera-sorta bat kaleratu du, beraien egoerari buruz informazio praktikoa lortu asmoz.

Datu-bilketa honen helburua, Udalerrian dagoen lan-merkatua eta heziketa-beharrak ikertzea eta, era berean, enplegua sortzeko zenbait iniziatiba bultzatzen laguntzea da.

Inkestak bete ondoren, Udaletxera eraman behar dira; eta enplegu



Inkestako emaitzen arabera enplegua sortzeko iniziatibak bultzatuko dira

gaiez informazio zuzena lortzeko aukera izango da.

Epea datorren ostiralean, hilak 10, amaitzen da.

Bergarako Errehabilitazio-Zentrua inauguratu

Asteazkenean ofizialki inuguratu zen Bergarako Errehabilitazio-Zentru berria.

Zerbitzu berri hau herrian bertan egonda, Bergarako biztanleek hemendik aurrera ez dute Eibar, Arrasate edo Gasteizeko Errehabilitazio-Zentruetara joan behariko, orain arte gertatu izan den bezala.

Lehen pisuan errehabilitazio-gimnasioa du, eta oraindik falta den materiala hemendik gutxira helduko da.

Zentruak ultrasoinu eta infragorri makinez gain, zauritutako organuen funtzioak indarberritzeko hainbat aparatu ere badauzka. Patologia-mota guztiak tratatu ahal izango dira bertan.

Mantenimendu-Gimnasi Zerbitzua ere bertan jarrezko asmoa bada.

Errehabilitazio Zerbitzua egunero 8etatik 3ak arte egongo da zabalik.

Arrasateko ikastolek grebarik ez

LAB eta STEE-EILAS sindikatuek asteazkenearako konbokaturiko grebak ez zuen erantzunik jaso Arrasaten, ikastola guztietan lanegun normala izan zelarik.

Greba konbokatu zutenek, Hezkuntza-Sailaren ordezkariekin Ikastolak Sare Publikoan sartzeko negoziazio-mahai bat eratzea eskatzen zuten.

Negoiazioaren beste puntu batzu, lanpostuen estabilitatea ziurtatzea, euskalduntze-mailak garantizatzea, gela bakoitzean 20 ikasleko kopurua mantentzea eta D ereduaren etorkizuna garantizatzea lirateke, besteak beste.

ELA-STV sindikatua, beriz, grebaren aurka agertu zen. Sindikatu honen ordezkarien esanetan, "greba honek langileak nahasten ditu, lan-arazoak, arazo pedagogiko eta politikoak nahasten bait ditu".



VIGURI, S.A.

T.B - BIDEO - Hi-Fi

Merkatuko markarik inportanteenak eta azkeneko berrikuntza teknologikoak


**INTERESIK KOBRATU GABE FINANTZIATZEN
DITUGU ZURE EROSKETAK!!**

VIGURI, gertuago zeure zerbitzura.

Iturriotz, 33

Zerkaosteta, 24

Tfnoa: 798565



ZENBAKI

Gaiak: Kontabilitatea
Fiskalitatea
Lana
Zuzenbidea
Juridikoa
Finantzaketa
Aseguruak

BASABE INDUSTRIALDEA
ARETXABALETAKO (Gipuzkoa)
Tfnoa: 79 88 75
79 75 99

Kontsumo-Bulegoa, gero eta erabiliagoa

OMICek (Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoak), plazaratu du jadanik, joan den urteari dagokion bere ekintzen balantzea.

Urte osoan zehar 262 ekintza burutu ditu, hauetatik 23 beste erakunde batzuen erabakien zain delarik.

Honako ekintza hauek izan dira ugariak 1988an:

— Aholkularitzari dagokionez, etxebizitzari buruzkoak izan dira gehien kezkatu dituztenak kontsumitzaileak. Hauen atzetik, zerbitzu publiko eta pribatu, produktu industrial, monopolio eta merkatu -disziplinari buruzkoak datoz, besteak beste.

— Informazio kanpainak: sal-

menta ilegalak ekidin edo ebitatzeko Abenduan izandako kanpaina izan da inportanteena.

— Salaketa eta erreklamazioak: merkatu-disziplinari buruzkoak izan dira ugariak.

— Ikuskapen edo inspeksioak: oso gutxi izan dira.

Bataz beste, hilero 30 ekintza egin dira, ekintza gehien izan dituen hilabetea Abendua izan delarik, 47

ekintzekin.

Kontsumoarekin jarraituz, ACUALDEk (Deba Garaiko Kontsumitzaileen Elkarteak), "Inter Grunding Comercial S.A." enpresarekin sinatu du akordio bat, zeinaren arabera, Grunding Sistema 2.000 motatako zintak dituzten erabiltzaileek, zinta hauek VHS sistema motakoekin trukatzeko aukera dute.



1988ean OMICEk 262 ekintza burutu ditu

Garraio-Zuzendaritzak Arrasaten estazio meteorologikoa ezarri nahi

Eusko Jaurlaritzaren Garraio Zuzendaritza, Euskal Herriak europar mailako Metereologi Zerbitzuak edukitzea helburutzat duelarik, metereologia programa bat lantzen ari da.

Pausu funtsezkoa hau lortzeko datu-bilketarako sarea handitzea litzateke. Hau dela eta, eta kokapen aproposa litzatekeela ikusiz, Garraio-Zuzendariak estazio meteorologikoa bat Arrasaten ezartzeko baimena eskatu du, CLPren eremu batzuetan, hain zuzen.

Datu-bilketarako sare honekin, eguraldi txarraren ondorioz sor daitezkeen arriskuez berehala jabetu ahal izango da.

Sorgina Irratiak ez du emititzen

Joan den hilaren 21ean Gazte-txeko elektrizitatea moztu zutenetik, Sorgina Irratiak emititu gabe jarraitzen du, arazoa oraindik ez baita konpondu.

Dena den, larunbatean egingo den bileran, hemendik aurrera zer egin planteatuko da. Programak egiten dituzten guztiei bilera horretara joatea eskatzen zaie.

GABINETE MEDIKOA

Medikuntza
Digestibidea
Endoskopia
Ekografia
Analisak

Ferrerias, 1.
Tfnoa: 79 15 08



EUSKADI
IRRATIA

Euskadi Irratia

Fm 104'4

Arrasate eta inguruko
alalbisteak astelehenetan
eta ostegunetan

12etatik 1etara

Programa

GOIZEAN BEHIN

Otsail kulturala

Udalak Amaya antzokiarekin zer egingo duen oraindik erabakitzeke dagoelarik, honen erabilpena finkatzen ari da.

Horrela, badirudi hemendik aurrera ostegunero pelikula izango dugula. Ekitaldi hauek gain, hil honetan antzerki saio bat; hiru kontzertu eta pailazo-espektakulu bat izango ditugu, ekitaldi guztiak Amayan egingo direlarik.

Ekitaldi hauek osatzen dute kultur egutegia:

— **Antzerkia:** hilaren 4ean, larunbata, Eugene Ionescoren *“La cantante calva”* antzerki-saioa, 10,30etan izango dugu. Errumaniar honen obra “arrazoiak sortutako absurdorantz doan antzerki-obra dugu”. Arau logikoek zuzenduriko absurdo baten aurrean gaude, beraz. Obra *“Teatro Estudio de San Sebastián”* antzerki taldearen eskutik datorkigu. Taldea 1984ean sortu zen eta Antzertirekin kolaboratu zuen.

— **Hiru kontzertu:** hilaren 9an, osteguna, *Euskadiko Orkestaren* kontzertua. Hilaren 18an, Soinujole-Kontzertua, eta 25ean, Trikitrixa-saioa izango ditugu.

— **Pailazo-espektakulua:** hilaren 11an, larunbata *“Takolo, Pirrux eta Porrotx”* pailazoak izango ditugu ikusgai.

— **Bi pelikula:** hilaren 16an, osteguna, Luchino Viscontiren *“La caída de los dioses”* ikusteko aukera izango dugu. Eta 23an, Donna Deitchen *“Media hora más contigo”* pelikula proiektatuko da.

Bestalde, datorren hilerako zine sobietar-ziklo bat egiteko asmoa dago. Pelikulak hilaren 16, 23 eta 30ean proiektatuko lirateke, tituluak konkretatzeke daudelarik. Zikloa *“Kultur Bideetan”* izeneko programa barruan datorkigu.

Donostian, azaroaren 25 eta 26an, Estatu Espainoleko emakume abokatuon II. Ihardunaldiak izan ziren.

Behar bada, betiko susmoa hartuko diozue honi, baina egitan diotsuet ez ginela beti bezala aritu: kexuz eta tristuraz (ez arrazoirik ez dagoelako...), ilusio eta poz osoz baina, soluziobideak urratu nahian eta eguneroko lanetan oinarriturik.

Besterik gabe, hemen doaz, ondorioak:

1) Ordaintzen ez diren Pentsioen Fondo bat sortaraztea; Fondo honek Estatuko Aurrekontuen gain gelditu beharko luke, baina horretarako, 500.000 sinadura jaso beharko lirateke.

Hori lortuko balitz, gure proposamearen barruan zera dago: Ordaintzen ez duen guraso edo senar edo emazteari Estatuak exijitzea, berak ordaindu duenaren orde. Hau ez da ezer berria Europako legeria gehienetan jasotzen da eta.

2) Aurrekoarekin lotuta, familiaren abandonua beste modu batez zigortzea litzateke: orain arte etxetik alde egitea dago gehienbat zigortua. Guk, horretarako, eta konstituzioaren arabera, askatasun osoa eskatzen dugu, baina ekonomikoki umeak edo ezkontidea abandonatzea gogor zigortzea, gizartearentzat oso garrantzitsua delako delitu hau.

3) Familiari buruzko gatazkak aurrera eramateko prozedura aldatu beharra: 1981 urteko behin-behineko prozedurak jarraitzen du, eta probisionalitate horretan 7 urte daromatzaugu.



Nekane San Miguel*

Hori bezain larria, beste hau da: dauden neurriak ez direla aplikatzen eta horrek ere egoera latzak sortertzen dituela.

4) Epaileei dei bat egitea ere beharrezkoa ikusten dugu, sexu-harremanik ez edukitzea eta etxeko lanik ez egitea ezkontz banaketa emateko arrazoitzat ez dezaten eduki aurrerantzean.

5) Pertsona fisikoen gaineko zergaren aldaketa, diskriminatzailea baita, gizonek pentsioa dela eta ordaintzen dutena errentatzat konputatzerakoan, askoz ere gehiago ordaintzen bait da.

6) Abortoaren despenalizazioa, behin eta berriz. Bakarrik emakumearen baimenik gabe egiten denean zigortu beharko litzatekeelarik.

7) Bortxaketa-delitua, pertsonen aurkako delituen barruan kokatzea. Erresistentzia gogorra eta penetrazioa, edozein abuso mota bezala tipifikaturik. Eta etxe barruan ematen diren tratu txarrak ere bereziki tipifikatzea.

8) Oraingo araudian eta ezkontz elkartearen administratzerakoan dauden traba guztien desagertzea.

9) Ezkontide batek eskatzea nahikoa izan dadila ezkontz elkarrekin ekonomikoa banatzeko.

10) Ezkondu gabe elkarrekin bizi direnen ondorenak arautzea ere beharrezkotzat jotzen zen. Ez beren artean baina bai Estatu eta beste Hirugarren pertsonen aurrean.

(*Abokatu arrasatearra)

Agirre Miota Gestoria
Zerga deklarazioak
Erdiko kale 28, 2.
Tfnoa: 79 34 33

Memesa Arrasate
79 42 22

Impi gozoak
Gosariak eta gozokiak
Zarugalde, 8
Tfnoa: 79 63 34

Lehengo egunean Udal Euskaltegiko ikasle-talde baten bisita izan genuen. Oraingo honetan, guk entrebistatzailearena egin beharrean, alderantziz izan zen, eta gu entrebistatuak izan ginen. Uste dugu beraien kuriositatea asetu genuela. Gehien gustatzen zaien saila "Txutxumutxuak" izeneko hau zela aitortu zigutenez gero, txutxumutxuetan agertu dira.



izen propioak

Patxi Goikolea, 55 urte, ezkondua eta lau seme-alabaren aita. Euskal Herriko Bertsolarien Elkarteak egin duen azken bileran "Ohorezko Bazkide" izendatu du mondragotarra. Patxi Ederlanen egiten du lan. Juanito Akixu eta orain Iparraldean errefuxiatuta bizi den Xanti Iparragirrekin batera Almeneko Bertsolari-Eskolako bultzagile. Euskara eta bertsolaritza aldeko langile sutsua, Patxi -Danel bertsolari gaztearen aita- AED taldeko sortzaile-tariko bat da. Zorionak!

Jose Luis Elkoro, 53 urte, Bergarako alkatea. Alkatzaren lanak direla eta Antzuolako Elai enpresaren hazkundera dela, utzi egin du Elaiko gerentzia. Aurrerantzean, alkatzaz gain, Elaik bere inguruan sortu dituen enpresa berrien -Seytra eta Balzers-Elai- ardura hartuko du. Aipatu karguez gain, Elkoro "Egin" egunkariko Administrazio Kontseiluaren buru da.

Jesus Eskibel, 52 urte, korrikalari eskoriatzarra. Orain dela gutxi Hernanin jokaturako kross probetan Gipuzkoako Txapelketa irabazi zuen, beterano mailan. Jesus orain hamar urte hasi zen takarradan, semearekin batera. Ederlanen egiten du lan eta Arrasate Atletiko Taldearen fitxa dauka. Pozik bai pozik ikusten da Almen inguruetan entrenatzen eta baita Arrasateko pistan ere. Eutsi goiari, Jesus!

Julian, Mondrako jokalaria eskoriatzarra, 15 hilabete lesionaturik egon ondoren, igandean, Atxabalpen txalo artean zelairatu zen.

Omenaldia Jesus Garmendiari

Lau urtez AEDko lehendakaria izan eta gero, Jesus Garmendiak utzi egin du kargua. Hori dela eta, joan den ostiralean, urtarrilak 27, AEDk agur afaria antolatu zuen haren omenez. Jende asko

bildu zen bertara Jesusi atxikimendua eta esker ona azaltzera.

Patxi Goikolea (ikus Izen Propioak) izan zen zeremonia-maisua, hainbat opari eman ziolarik. Azkenean Jesusek berak hartu zuen hitza. Hasierako AED kideak aipatu zituen; AEDren izpiritu kritikoaren jarraipena azpimarratu zuen "bestela beste eliza bat bihurtuko da", AEDk euskaltzaleon topaleku izaten segi dezan opatuz. Amaitzeko, ikastolan ere AEDren sua transmititzen saiatuko dela aipatu zuen.

Umore ona, abestiak eta bertsoak ere ez ziren falta izan. Edonora zoazelarik ere, zorte on, Jesus!

Bernardo Bollon eta Juli Martinez Dorletan ezkondu ziren Urtarrilaren 7an. Erregeen opari ederra. Zorionak eta urte askotarako!

Oharra: Joan den astean Begoña eta Michaelen ezkontzaren argazkia argitaratu genuen. Azken orduko presak zirela eta, hanka sartu eta, argazkia Lasorena balitz bezala agertu zen, baina EPELDERena zen. "Cesarrena Cesarrentzat...". Barkatu.



Epelde

UDALA

Auto-eskola

Minusbaliatuentzako

klase bereziak

Otalora, 25 Tfnoa: 79 88 56

M ARENAZA

Altzariak
Diseinua
Apainketa

Bizkaia, 1 Tfnoa: 79 08 07
Aretxabaleta

PRONOVIAS DOCHY



Jaun- -Hartzeak

Independencia
20
Gasteiz

Eritzi kontrajarriak gaztetxearen inguruan

Urtarrilaren 21ean Gaztetxean egitekoa zen kontzertua Udalak galera ondoren egun-eguneko gai bilakatu zaigu Gaztetxea. Arazo nahaspilatsua berau. Azken egunotan bai Udalaren aldetik, bai gaztetxearen aldetik akordio batzuetara helduak zirela entzun dugu, baita hauek ez direla bete ere.



Tirabira ugari Gaztetxea dela eta

AGArean planteamendua

Gaur egun Gaztetxea dena, lehen Gurea zinema, 1987 urteko lehen hilabeteetan AGAkoek okupatu bazuten ere, Arrasateko Gazte Asanbladak Gaztetxearen alde lehenagotik ziharduen lanean. Dena den, gutariko gehienok okupazioaren ondoren izan ganuen AGAren berri; beraz, ez da atzo goizeko kontua.

AGAkoen eritziz, Gaztetxea beharrezkoa dela onartu behar du Udalak. Beste gizatalde batzuen beharrei irtenbidea ematen zaien era berean, eman behar zaie irtenbidea gazteen beharrei; adibide gisa, zaharren egoitzak eta ludotekak aipatzen dituztelarik. Beraz lehenengo eta behin Udalarik gutxiengo baldintza batzuk beteko dituen lokal bat eskatzen diote. Lokalak ez du zertan Gurea izan behar, beste edozein izan daiteke, baina garbi uzten dute ez direla hortik mugituko beste lokala izan arte.

Behin lokala izan ondoren, gazte-asanbladaren esku legoke bertako funtzionamendu eta ekintzen ardura.

Udalak zer dio?

Udalak gai hau dela eta, ez du orain arte erabaki garbirik hartu: Gurea zinema ez du gaztetxetzat onartu, baina ezta ere bertatik gazteak botatzea erabaki; beraz, Gaztetxea "a-legalitate" egoeran dagoela esan daiteke.

Gazteria-Batzordeko buruarekin egon gara eta aipatutako arazo honi orain arte konponbiderik zergatik ez zaion eman galdetu. "Udaletxean, bost talde politiko egonik, gehiengoa inork ez duelarik, erabaki unanime bat hartzea oso zaila da. Nahiz gai hau askotan eztabaidatu dugun, ez da orain arte adostasunik lortu." Udalak Gaztetxearen inguruan hartu dituen erabakien artean Gurea konpontzeko lanetan milioi bat gastatzearena izan da. Konponketa hauek teilatu eta elektrizitate instalazioan egin ziren. Konponketa hauek beharrezkotzat jo ziren. Izan ere, konpondu ezean arrisku handiak sortuko bait ziratekeen gaztetxearentzat.

Zaratak direla eta

Gurea okupatu eta denbora gutxira

zaratak zirela medio, bizilagunek lehen salaketak egin zituzten. Beraiekin egon eta garbi azaldu digute Gaztetxearen aurka ezer ez dutela, baina beraiek jasaten dituzten zaratak jasanezinak direla errepikatzen dute behin eta berriro. Bilera ugari izan dituzte bai Alkatearekin, bai Gazteria Batzordeko buruarekin, sofitzen duten arazoari irtenbidea aurkitu asmoz. Bizilagunek bi talde bereizten dituzte, bata egunero zaratak jasaten dituztenez osatua, 12 etxebizitza hain zuzen ere; eta bestea, kontzertu egunetan zaratak jasaten dituztenez osatua, 80 etxebizitza, alegia. Datu adierazgarritzat, Urtarrilaren 21ean kontzertoa zegoela jakinik, hamar etxebizitzako bloke batean bi bakarrik geratu ziren lotara eta beste batean lau, gainerako guztiek alde egin zutelarik.

1988ko Maiatzean auzokideek, Gaztetxeako ordezkariak eta Udalekoek izandako bileran, Gaztetxeakoek jaialdiak bertan ez egitera konprometitu eta honez gain Gaztetxea ixteko ordutegia jartzeko konpromezua hartu zutela adierazi digute, beti ere, Udalak beste lokalen batzuk dohainik eta inolako trabarik gabe uzteko balditzarekin. Udalekoek berriz, udal-lokalak uzteko ahaleginak egingo zituztela adierazi zuten. Orduan hartutako akordioa, egun gutxitan errespetatu omen zen. Bizilagunen eritziz, Gaztetxean komisio koordinatzaile baten beharra dago hartutako erabakia betetaz dezan.

Kontzertuen arazoa

Gureak, kontzertua bertan egin ahal izateko kondizio egokirik ez duenez, tirabira ugari sortu da AGA eta Udalaren artean. Bizilagunen lehen kexen berri izan ondoren, lehenago aipatu dugun akor-

diora heldu zen. Gaztetxekoen arabera, Udalak bere hitza jan egin du, udal-lokaletan kontzertuak egiteko trabak jartzen bait dizkiete. Aldiz, udalekoek, akordiora heldu ziren arren, AGAkoek lokal hauek ez dizkietela eskatu diote, eskatu zitzaiegun egun bakarrean hauek erabiltzeko baimena eman zitzaiegun gehituz. Arazo hau larriena izanik, beste tirabira batzuk ere egon dira bien artean. AGAkoek materiala eskatu diote maiz Udalari, baita subentzioak ere. Udalekoek gauzak egun gutxiko epearekin eskatzen dietela

dioten bitartean, AGAkoek eskatzen dutena Udaletxean egonik eta uzteko arazorik egon ezean, lehenago ez dutela zertan eskatu aipatzen dute. Udalaren arabera, hau AGAkoen planifikazio ezatik dator, Udala "Erruki Etxea" ez dela gaineratuz.

Beste arazo batzuk.

AGAn lanean aritu eta bera utzi duten mutil batzuegana jo dugu honen arrazoa esplika diezaguten. Beraiek arrazoi garrantzitsutzat drogarena eta Gaztetxean dagoen fundamenteu-ezarena aipatzen dute. "Gulan lanean gogo handiz hasi ginen baina gure lanak ezertarako balio ez zuela konturatzen hasi ginen, sortzen diren arazoak konpontzeko fundamenteu gutxi bait dago". Drogaren arazoa Gaztetxe barruan konpondu bazen ere, inguruetan segitzen dute, bai kameiloek bai konsumitzaileek. AGAn orain ez dauden gazte hauek, neurri gogorrek hartzearen aldekoak ziren, gaztetxeakoak *fazsista* deitzen omen dituztelarik. Bestalde lapurreta ugari suertatu da Gaztetxean eta

gazte hauen eritziz ez da inolako neurririk hartu hau galerazteko. "Gaztetxe baten beharra ikusten dugu, baina, funtzionatuko duen Gaztetxe bat, oraingoa dagoen egoerari mantentzea baino berau ixtea eta



Udal eta Gaztetxearen artean tirabira franko izan da

porrot egin dutela onartzea hobe da"

Gaztetxeakoek, bitartean, egiten dutena baino gehiago ezin dutela egin esan digute. "Kaleetik ezin ditugu bota, gu Gaztetxetik joanez gero bertan segituko lukete, ahaleginak egin ditugu Gaztetxetik bertatik botatzeko eta lortu ere egin dugu, baina inguruetan segitzen dute". Lapurretak direla eta, "Gaztetxea jende guztiarentzat dago zabalik, pertsona bat Gaztetxera datorrenean ezin dezakegu jakin ostuko digun ala ez; lapurtu ondoren, bertatik bota ditugu, oraindik ere egin diguten zuloa ordaintzen dihardugula".

Beraz, Urtarrilaren 21ean gertatzen nahaspila honen ondorioa izan zela esan daiteke. Udalekoek diotenez, kontzertua burutzeko asmoa zegoela jakin zutenean AGAkoek garbi adierazi omen zieten Gurean kontzertu gehiago ez zela egingo leku egokiagoak badaudelako horrelako ekitaldietarako (Monterron, Polikiroldegia), orain arte AGAkoek behin bakarrik eskatu dituzte-

nak. Beraz kontzertua galeraztea erabaki ondoren beren ustez hartu beharreko erabakiak hartu zituzten. AGAkoek, berriz, lehenago ere kontzertuak egin dituztela esaten dute eta Polikiroldegia edo Monterron erabiltzeko Udalak trabak jartzen dizkietenez, oraingoa ere Gurean egitea pentsatu zutela. Ondorio bezala zerikusi zuzena duten alde biak, bai Udalak bai AGAk berean segitzen dutela esan daiteke. Ferrialeko auzokideen arazoa konpondu beharrekoa dela garbi

dago, baina denak pozik utziko dituen irtenbidea zail ikusten da; kontutan izanik talde ugari duela zeresana gai honi buruz. Aste honetako Gazteria-Batzordearen batzarreak arazoari helduko dio eta dirudienez, oraingoa behin-betiko konponduko da arazoa. Dena den, ez da gauza erraza izango, kontutan izanik Udalean errepresetazioa duten talde politiko ezberdinak eritzi ezberdinekoak direla. Badirudi lokal alternatibo gisa Ospitale zaharra aurkeztuko dela. Udalaren ordezkariak diotenez, Arrasateko Udalak erabili gabeko lokalik ez duela kontutan izan behar dugu. Gogora dezagun Gureari alternatiba emango zion lokala Telefonikaren lokala izan zitekeela pentsatu zela, baina honek bi arazo planteatzen zituen: batetik, Lore Gaztea taldea ez dago bertatik irtezeko prest eta, bestetik, erreglamentaziotik kanpo dago eraikuntza. Bestalde AGAkoek ez daude lokal honetara joateko prest beraz, irtenbide hau baztertu egin zen.

Famauen ahotik



FRAI RUFINO: "Arantzazun gosie pasau gaixuan, gosie ikeragarrixe"

FITXA TEKNIKUE

IZENA: Rufino Oianguren. "Frai Rufino"

JAIXO: 1929-VI-14ean, Bolibarren

OFIZIUEK: Enfermero, koziñero

KOMENTUEK: Arantzazu, Forua, Zarautz, Olite

Nundik-nora fraile?

Amak gure juan, erderaz ikesi eta abare sartzie. Alde guztietatik abare, eh! Nik, barrez, abare,... ezta pentsau be! Bañe zer bait ein gure bazan erderioi derrigor bier!

Hamaike edo hamabi urteaz juen nintzuan Arabako Ilarrazara erderaz ikesten. Orduen tripa-truke izeten zuan. Beste atxabaltar bat be bajauan bertan eta guk ze erdera ta ze prosoziño. Bertakuek bai, ikesi jittuen berba asko ta asko euskeraz.

Atxabaltarroi izen zuan Araban nietzako salbazifñue. Hareana juen eta sikera banaukan zefñekin berba ein.

Gero Arantzazure...

Arantzazun osaba bat naukan eta bere bittartez juen nintzuan 15 urteaz. Bolibarko beste mutil bat eta bixok, Uite-Zahar egunez gañera. Hartu trena Eskoitzan, bazkaldu Oñetin eta Oñetitik gora oiñez. Metro beteko edurre eta halako kartoizko maleta batzuk kordelakin lotu, hartu bixkerrien eta gora.

Geure borondatez juen gitzuan eta eskerrak horri. Hogei urte ein arte ez nitzuan etxera agertu.

Eta hango bizimodue?

Orduen gerra ostien gose denpo-

rie zuan eta ikeragarrixek pasau gittuan han. Jan kontuen Arantzazu baltz egonda jak, gero mejorau zuan, bañe. Noixien behin etxetik bielketan jostien halako opil bat eta oingo pastelak baño gosuaue zuan ha gureztat.

Estudixio kontuen guri, "hermanuoi", etxuskuen askoik esijiduten, batxiller tamañoraño, edo. Guk komentuko lanak eitten gittuan: harotzeixan, koziñero, zapatero, sakristau. Ni neu, enfermero.

Eta koziñero, noztik?

Arantzazutik Bizkaire juen nintzuan, Forure, etan han hasi nitzuan sukaldien lagunketan. Handik Donostiara bieldu ninduen "Hotel Barandiaran"era. Denporalditxo bat ein eta gero Egafia Restaurantera. Restaurantietan "a la carta" ikesten dok eta han ikessittekuek komenturako gutxi balixo juen. Hemen berduriaz konpondu bier...

Bañe koziñero nausi be izen za?

Bai, Donostien egon da gero, 22 urtekin Olitera juen nintzuan. Han 100dik gora estudiante jauan eta ni koziñero nausi. Hamar urte ein nittuan eta azkenien gaixotu nitzelako etorri nitzuan Mondraure. Medikuek lan larrei zala esan justan ta; bestela ni gustora ninguan han!

Estepan Plazaola eta Jesus Mari Garai

Zelebrequerixak

- Zer esan dok? -medikuak.
- "Hidropresia" daukadala.
- Hidropresia ez, hik "ardaupresia" daukak.

■ ■ ■ ■

Eibarko mediku bat joan ei zan inguruko baserri batera. Errezetia egitterakuan konturatu ei zan lapitzik etzeukala. Baserrixan be etzeukaten eta klarion bat ekarri zotsen. Medikuek hartu eta gaixuan kuartoko atian eskribidu zeban errezetia. Handik laster baserriko seme nausixa jetxi zan botikara, bizkarrian atioa zeroiala.

■ ■ ■ ■

Tabernarixa eta bezerua

— Bueno hi, hau eztok jiria. Eran eta eran eta sekula pagau ez. Noiz pagau bia dittuk zorrak? -Tabernarixak haserre.

— Apuntaitzak.

— Apuntau, apuntau..., noiz arte jarraitu bia juat apuntatzen?

— Nik "fuego" esan arte.

■ ■ ■ ■

— Nik entzutia dotenez medikuak esate ei juek ardauak bizitza laburtzen dabela.

— Medikuek arrazoia jaukek. Konturatuta najaok ni eran bareko egunak luzeaguak direla.

■ ■ ■ ■

— Bueno hi, hau eztok martxa, eran eta eran eta sekula pagau ez. Noiz pagau bia dittuk zorrak?

— Hau be bajuau? Hola jartzen bahaiz bezeroik onena galduko dok!

Juan Martin Elexpuru



Fotokopiak
Enkuadernazioak
Planoen erreprodukzioa
Offseta

Ferrerías, 23

ARRASATE Tfnoa: 79 46 62



ERAÑA


AHOLKULARITZA

OROTARAKO ASEGURUAK

Kontzeziño kalea 4 - behea

Tfnoa: 79 83 95

ARRASATE



JESUS ELKORO

ELEKTROTEKNIKA

TB - HIFI - BIDEO

Tfnoa: 791886

ARRASATE



ZURE AUTO ZAHARRAK
GEHIAGO BALIO DU
RENAULT 21*
EROSTERAKOAN.

Otsailean zehar, **RENAULT 21** erosterakoan, zure ibilgailu zaharraren balorazio berezia egingo dugu. **150.000 pta.** taraino aurrera ditzakezu, **RENAULT 21 TXE**, **RENAULT 21 TI** gamako goi-bertsioak erosterakoan.

Ez baduzu automobil zaharrik, edo ez baduzu berria ordaintzeko erabili nahi, ez arduratu! Baldintza interesgarriak ditugu zuretzat.

* Eskaintza honek ez du balio, aldi berean aire girotua eta ABS dituzten bertsioetarako.

ZATOZ IKUSTERA



TALLERES MECA, S. A. n Araba Etorbidea, z/g
Tfnoa: 79 59 99



SUDC BATZORDEA

HARATUZTEETAN ...

**mozorrotu eta
parte hartu**



Ondo ibili eta gutxi gastau!!!

“Euskal Herriko kirol-medikuntza hasi berria da, orain bost sei bat urte hasitako jendea gara. Baina Eusko Jaurlaritzak ez du behar honen zuzendaritza bere gain hartu. Egiten diren ahalegin guztiak pertsona edo entitate pribatuenak, Diputazioenak edo Udalenak dira, baina ez doaz plangintza global baten barruan. Plangintza eza hau ez da bakarrik Euskal Herrikoa baizik eta Estatu osokoa”.

(Sabin Padilla, kirol-mediku gatzagarra DV egunkariaren “Zabalik” gehigarrian).

“1956an Kooperatiben mugimendua sortu zen Arrasaten. Apaiz bizkaitar bat izan zen mugimendu honen eragilea, Jose M. Arizmendiarieta, Arrasaten apaiz laguntzaile zegoena. Egintzara eraman nahi izan zuen, kristau izateak aberastasuna eta lanpostuak sortzea ere esan nahi duela. Horretarako lantegi kooperatiboak sortu zituen lanari eta lanaren ondorio onei lehentasuna emanaz kapitalaren aurrean”.

(Espainiako Gotzain Konferentziak argitaratutako “Hau da gure fedea” liburuxoan).


“Ni bezain onak ziren beste lagun batzu erdibidean gelditu ziren, agian ez zutelako futbola helburu bakartzat hartzen... Nik beti oso argi izan nuen futbolar izan nahi nuela eta partidu baten ondoren koadrilla poteatzera iretzen zenean ni ez nintzen joaten, futbolar izateko kaltegarri zitzaidala uste bait nuen”.

(Santi Idigoras, Errealean ibilitako jokalaria oñatiarrak, “Hemen” aldizkarian).

“Arrasateko Eskola Politeknikoko Ingeneritza Teknikoa halako moldez eraberritu da, industriaren beharrei erantzuteko teknologiei buruz egindako diagnostikoa bete-betean asmatuz, ezen, ikasleentzako postu-kopurua hirukoiztu badu ere, bere posibilitateak gainezkatu dituen ikasle kopurua bait du”

(Hezibide Elkarteak TU-Lankide aldizkarian idatzitako txosten batean)

Nola ikusten duzu Euskal Herriko Aurrezki-Kutxek daramaten fusio-prozesua?



Banku eta Aurrezki Kutxen artean fusioak egiteko, aldeko argudio garrantzitsuenak eskala ekonomikoetan daude, aipatuenetarikoak hurrengoak direlarik:

— *Bulego sareen*

hobeagoak. Gure Aurrezki Kutxen kasuan kontrako argudio honekin: planteatutako fusio-prozesua herrialde bakoitzeko “munizipala” eta “probintziala”ren bateratzea da. Eta herrialde bakoitzean kokapen egokien alternatiba urria dela eta, prozesua bulegoak ixtera muga daiteke.

— *Automatizazio eta zerbitzu informatikoen kostuak murriztea.*

— *Arrisku-konzentrazioaren gutxitzea.* Askotan bezero berberak konpartitzen dituztelako, Euskal Herriko kasuan ez da izango aspektu positibo aipagarririk.

— *Negozioa dibersifikatzea.* Euskal Herriko Kutxen fusioetan dimentsio-aldaketak inportanteak badira ere, badirudi nahiko ez direla finantz segmento oso dinamiko batzuetan (Enpresa handirako bankan adibidez) sartzeko.

Banco de Vizcayaren aholkularia izan den J. Revellen esanetan, “*Gestio eraginkorragorik sortarazten badu, fusio batek arrakasta edukiko du; bestela soluzionatzen dituenak baino arazo ugariago sortuko du*”.

Jon Emaldi

Lan Kide Aurrekizko teknikaria

FAGOR



TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN
ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA

Arrasate

u
t
o
e
s
k
o
l
a

Klase
praktiko
eta
teorikoak

Olarte, 30
79 89 89

PROMOCIONES MARKULETE, S.A.
NABE INDUSTRIALEN
SALMENTA

Mendi - Etxebarrin

200 m² tatik aurrera
sarbide zabalekin

- * Plantartekoa eta zubi-garabia, aukeran.
- * Xafla bikoitz eta isolamenduzko estalkia.
- * Zerbitzuak: saneamendua, telefonia, energia elektrikoa eta edateko ura.

Informazioa eta salmenta:

Tfnoak: Gasteiz * 28 67 60

* 27 79 60

Arrasate * 79 97 95

UDAL EUSKALTEGIA
euskarazko ikastaroak

3. 6. 7. urratsetan

Plaza mugatuak

Matrikula: Animazuri, 2

Tfnoa: 79 70 77

INFORMA ZAITEZ !!

“Langabetuen arazoa ez da epe laburrean konpondoku”

Aste honetako ostegunean, ELA sindikatuak herri mailako batzar orokorra izan zuen Arrasaten. Hau dela eta, Julian Balanzategi, ELAko liberatuarekin egon nahi izan dugu, sindikalgintzaren egoera, Arrasateko arazo eta beste gai batzuren aurrean beren ikuspuntua azal diezagun.

— Arrasate Press: Zein egoeratan dago sindikalgintza Arrasaten zuen eritziz?

— Julian: Afiliazio maila nahiko ona dela esan daiteke. Afiliatuta dagoen langile kopurua %40a izango da gutxi gora behera, kooperatibetan salbu. Kooperatibetan gure afiliatuen kopurua baxua da eta beste sindikatuena gurearen antzekoa da LAB, sindikatuarena izan ezik. Kooperatibetan sindikatuek ez dute lan mundurik.

— Abenduaren 14ko grebak Arrasaten izandako eraginaz eta honek ekar ditzakeen ondorioez zer esango zenuke?

— Arrasaten greba deialdiak oso erantzun ona jaso zuen, goizez piketeren bat aritu zen, baina, dena den, jendeak lana beren borondatez utzi zion lanari.

Langileek garbi ikusi zuten Gobernuari beren egonezina adierazi behar ziotela, ez bakarrik “Plan de Empleo Juvenil” delakoaren aurrean beren desadostasuna adierazteko, Gobernuak aurrera daraman politika sozial eta ekonomikoaren aurrean beren protesta azaltzeko baizik.

Adibide bezala, pensioak aipa daitezke. Gobernuak iaz IPCa %3an igoko zela aurrikusi zuen baina %5,8a igo zuen, ondorioz, pensionisten erosteko ahalmena jaitzi zen, pensioak batz besterik %4 igo bait ziren.

Grebaren ondorioez hitz egiterakoan ezin muga gaitetzke Arrasatera, orokortasun baten barruan baloratu behar bait da. Gobernua orain diru-eskaintza batz egiten ari da, baina, bere politika ekonomiko eta soziala

aldatu ezean, ez da egoera aldatuko. Gobernuak lanpostuak sortzen gastatu behar du dirua.

— Zuen eritziz lortuko al da egun hauetan hainbeste entzuten ari garen kontzertazio soziala?

— Gure ustez ez da lortuko. Dena den ez dugu uste kontzertazio soziala ona denik, akordioetan beti topea ipintzen bait da enpresa bakoitzaren egoera berezia kontutan izateke. Enpresan desberdinen egoeraren arabera kontzertazio sozial hori bete dezake edo ez. Langileei kontzertazio sozialak baino onura handiagoa, enpresaz enpresa negoziatutako komenioek dakarkie.

— Zein da langabeziaren egoera Arrasaten? Jende askoren ustez Arrasaten beste leku batzutan baino langabetu gutxiago dago, egia al da hori?

— Langabetuen egoera oso larria da, hauetariko askok ez du inolako diru sarrerarik. INEMen apuntatuta daudenetatik %26ak baino ez du diru laguntza jasotzen, beraz egoera oso larria da. Arrasaten %20, 21 inguruko langabezia dago, Gipuzkoan dugunaren antzekoa. Ezin esan daiteke Arrasaten beste leku batzutan baino langabetu gutxiago dagoenik. Langabetu batzuek INEMen izena emanda egon arren lantxoren bat egiten dute, etxean piezak etab. Hau beraien egoerari nola baiteko irtenbidea eman beharretik dator.

— Zein izan daiteke irtenbidea, ba al dago irtenbiderik?

— Egia esan, epe motzera ez. 70. hamarkada izan zen haur gehien jaio zen garaia. Orduan jaiotako haurrak orain hasi dira lan bila, beraz, oraingoz langabetu kopu-



Julian Balanzategi

ruak gorantz egingo du.

Irtenbidea dirua duenak aurkitu behar du eta diru hori Administrazioaren esku dago. Beste herrialde batzuetan Administrazioak eraikitzen inbertitzen du, langabeziari irtenbidea eman asmoz, arlo horrek esku-lan handia eskatzen bait du.

— ELA sindikatuak sarritan salatu du eskualde-ospitalearen egoera, zer dela eta?

— Beno, kontutan izan behar dugu sindikatuen zeregina ez dela bakarrik komenioak bideratzea. Gure diruaz zer egiten den ere kontutan izan behar dugu, zerbitzurik eskaintzen zaigun. Zerbitzuetan oso kontutan izatekoak dira osasun zerbitzuak. Guk dugun eskualde ospitalea ez dago egoera onean, industrialde batetan kokaturik egoteaz gain kontutan izatekoa da hasiera batetan tailerra izateko sortu zela. Gure ospitalea ezin pareka daiteke Gipuzkoako beste eskualde batzuek duten ospitaleekin, ez da erakargarria espezialistentzat ikerketak eta horrelakoak egiteko ez bait du leku aproposik. Beraz, garbi dago ospitale berri bat behar dugula. Ez dugu esaten ospitale berri hau epe laburrera eraiki behar denik, baina, beste arlo batzutan ere epe luzerako planak egiten diren era berean ospitale berriaren eraikuntza planteatu dezakete.



Mondra, gorantz

Igandeko garaipena lortu ondoren, Mondra taldeak zazpigarren posturaino igotzea

lortu du.

Badirudi oraingo honetan, jokalarien erreakzio bikainaz gain, jakina, Arriaran entrenatzaileak asmatu zuela al-daketekin.

Lehenengo zatia aspergarria izan zen. Bigarren zatiko lehen 20 minutuak, berdin. Baina 65. minutuan Arriarranek bi aldaketa egitea erabaki zuten: Fede eta Guerreiro zelairatu zituen; Elizaran eta Astorga sartuz. Orduan etorri zen erreakzioa eta 10 minututan, 3 gol: bi Txosarenak, eta bestea, Federena.

Hau izan zen Mondrak ateratako jokalarien zerrenda: Makazaga, Josean, Julian, Urbina, Garro, Ignazio, Arrotxa, Elizaran (Fede), Astorga (Guerreiro), Mikel eta Txosa.

Julian atzelaria, 15 hilabete lesionaturik egon ondoren, igandean zelaira berragertu zen txalo artean.

Hemendik aurrera, bere lana funtsezkoa izan daiteke.

Mondrak etzi Zallaren aurka jokatuko du, Zalla sailkapenaren 3. postuan dago. Erronka zaila!

Gipuzkoako Squash Txapelketa

Astebukaeran zabaldu berri diren Antofiaako squash-frontoietan I. Gipuzkoako Squash Txapelketa, gizonen A eta B eta emakumezkoen kategoria absolutuan izan zen.

Argi dago kirol mota honen gero eta zale gehiago dagoela, baina oraindik gure bailaran ez dago squasheko txapeldunik, lehenengo postuak Donosti aldeko jokalaria bete zituzten eta.

Kotileozaleentzat datu bat, txapelketa honetan Pedro Migel Etxeniketik ministrari ohiak hartu zuen parte.

Gizonen A Kategoria:


1. Victor Juaristi (Donostia)
2. C. Sagues (Irun)
3. J. Azpilikueta (Donosti)
4. I. Chillida (Donosti)

Gizonen B Kategoria:

1. Fernando Ramirez (Donosti)
2. Paco Sanchez (Irun)

Emakumezkoen Kategoria Absolutua:

1. Alicia Txoperena (Irun)
2. Idoia (Irun)



MIRIA

WORLDWIDE COURIER

HIRIBARNEKO, ESTATU MAILAKO ETA NAZIOARTEKO BIDALKETAK

Informa zaitez

Deia doan: 900 300 400

Gipuzkoako Kross Txapelketa Azpeitian

Beste urte batzuetan fetxa haue-
tan korritu izan den Erdi Maratoia
aurten ez da egingo. Horren ordez,
Iraurgi Taldeak antolatuta, datorren
igandean, otsailak 5, goizeko 10etan
Gipuzkoako Kross Txapelketa joko-
tuko da, kadete, junior, promesa eta
senior mailetan, beti ere federatuta
daudenentzat. Parte hartuko duten
arrasatearrentzat, zorterik onena.

Arrasateko Squash Txapelketa

AKEk Squash taldeak Arrasate-
ko I. Squash Txapelketa, Gizonezko
eta Emakumezkoen Absolutu kate-
gorietan, antolatzeko asmoa du.

Interesatuak eman izena Kirold-
egiko bulegoetan, epea hilaren 10ean
bukatuko delarik.

Dorletako Ama

Txirrindulari-Eskola honek
deialdi bat zabaltzen du, txirrindula-
ritza munduan Eskola honetan has-
teko prest dauden 9-13 urte bitarteko
mutileei.

Interesatuak izena eman beharko
dute Eskoriatzako "Zarauztarra"
tabernan; Aretxabaletako "Roldan"
edo "Sasiain" dendetan edo "Arrasate
Kirolak"en. Apuntatzeko epea
hilaren 8an amaituko da.

Denborapasen soluzioak:

ZUTABEAK JAUSI DIRA

Hizkuntza bat ez da galtzen ez dakite-
nek ikasten ez dutelako, dakitenek
hitzegiten ez dutelako baizuk

podiuma

Jose Antonio Gay, atleta

Jose Antonio Gayk 18 urte ditu
eta "Geografia eta Historia" ari da
ikasten Gasteizen. Gaur jarraitzen
duen leku berean, Iturripen, hain
zuzen, duela sei urte, "joku bat
balitz bezala" hasi zen atletismoa
praktikatzen. Eta guztiz ezezaguna
jarraituko zuen izaten, joan den
Urtarrilaren 22an Euskadiko Txapel-
ketan 400 m.tako lasterketan
garaile suertatu eta, ondorioz, pa-
peretan agertu ez balitz.

Egunkarietan "europar planta-
ko atleta" deitu zuten eta berak
parre egiten du: "hori Antxon
Blancok esan zuen eta, ez dakit,
nire alturagatik edo izango da.
Eskertzekoa da. Zerbait inportan-
tea egiten duzunean zutaz fijatu
egiten dira, bestela inoiz ez, baina
normala da."

Jose Antoniori hobekien doaz-
kion lasterketak 200 eta 400
m.takoak dira. 200 m.takoan,
22''41''ko marka du; 400koan,
berriz, orain lortutako
49''71''koa. Aitortzen digu bera
izan dela marka honetaz gehien
harritu dena, batez ere estalitako
pistan lortu duelako, bera izan
dela.

Astero 5 bider entrenatzen du,
Fernando Zubiria preparatzailea
duelarik, "beti ibili da nirekin eta
lortutakoa berari esker izan da".

Iturripeko egoeraz ere, nola ez,
egin genuen berba. Instalazio txar
hauek direla eta, ea noizbait atletis-
moari uztea bururatu zaion galdetu
diogu, "atletismoari uztea ez, bai-



J. A. Gay etorkizun oneko
atleta

na, klubez aldatzea behin baino ge-
hiagotan bai, egia esan". Koltxoi-
rik ez dagoelako lurrera erori behar
den pertigista baten kasua komen-
tatzen dit. Batere atsegin ez dudan
adjetibo bat etortzen zait burura:
"terzermundista".


Harry "Buch" Reynolds

Hilaren 18 eta 19an Junior maila-
lako Euskadiko Txapelketara joan-
go da, eta 400koan irabaztea espero
du. Sevillako Txapelketara ez joa-
tea erabaki du. Valentziara, berriz,
oraindik ez daki joango den ala ez,
"oso gogorra da, normalean bi hi-
labetetan egiten dituzun lasterke-
tak bi egunetan egin behar dituzu".

Gainera, "Euskal Herriko Atle-
tismo-Federazioa"k, gonbidatu du
hilaren 10eko Donostiako mitine-
ra. Bertan Lewis izango da.

Galdetzen diogu, bestalde, Eus-
kal Herriak, estatu mailan, zer
postu betetzen duen atletismoan:
"Catalunya eta Madrilan atzetik,
uste dut gu gaudela".

Ahaztu barik, Jose Antoniak
Harry "Buch" Reynolds miresten
du.



EGIDO Ordezko Piezak
Automobilerako ordezko piezak


Legarre Pabilola. Tfnoa: 79 62 11

KIROLDEGI
Jatetxea
Eguneko menua
eta
karta
Musakola Auzoa. 79 82 31

Galileo 2.000

Azken urte hauetan Irakaskuntza Ertainen Erreformari buruz (IEE) asko entzun dugu. Ildo horretatik segituz ALECOP kooperatiba arrasatearrak GALILEO-2000 material pedagogikoa kaleratu du. Material hau IEE-aren "barne teknologia" ikasgaia emateko lan eta eduki programa bat da. Programak orain arte izan dugun ikasgelaren irudiaren aldakuntza dakarkigu. GALILEO-2000-ak ikasgela bost zatitan banatzea eskatzen du, esperientzia, entsaio, eraikitze, dokumentazio eta informatika eremuetan hain zuzen ere. Ikasgelaren aldaketa hau, ikasgelak, gelan bertan, behar dituen lan-tresna guztiak eduki ditzan planteatzen da.

Edukiak lau sailetan banatuak izango ditugu, hiru teknologikoak-elekttrizitatea, elektronika eta mekanika alegia-, oinarrizkoenak bait dira eta laugarrena, lan-antolakunt-



Ikasleek ikasitakoa praktikan jar dezakete

za eta administrazio-gestioa delarik. Laugarren sail hau, ikasgelaren gehiengoak enpresa batetan lan egingo duela uste delako planteiatzen da, honek enpresa bat zer den ulertzeko oinarrizko eduki batzu emango diolarik.


Ikastaroaren jomuga ikasleak pentsatutako proiektu bat gauzatzea izango da, klaseetan horretarako behar dituen baliabideak emango zaizkiolarik. Proiektua burutu ahal izateko behar dituzten edukiez jabe-

tzeko, bai ikasleek bai irakasleek fitxa batzuren laguntza izango dute. Metodologiak eta eman behar-koak zentru eta irakasle bakoitzaren esku legoke.

GALILEO 2000-ak ez ditu edukiak sailkatzen, ikasleari sortuko zaizkion beharren arabera azaldu beharko direlarik.

GALILEO 2000-ak, ikusten dugunez, irakaskuntzaren metodologiaren aldaketa sopsosatzen du eta, agian, bera ulertzeko geure buruen aldakuntza beharrezkoa izango da.

Arrasateko



ERDU - AEK

euskaltegian matrikula zabalik.

Alfabetatze eta EGA ikastaroak

Otsailak 15 - Ekainak 22 (egunean 2 ordu)

Langabetuentzat Ikastaro bereziak. Maila guztiak.

Otsailak 15 - Ekainak 2 (egunean 5 ordu)

ANIMA ZAITEZ eta eman lehenbailen zure izena.

Erdiko Kale 28 - 1. ezk

Tfnoa: 79 71 12

Folk-etik musika errodunera (eta II)



Badakit, bai, folkaren garaia igaro dela eta musika errodunarena iritsi dela esatean eskematizatzen ari naizela. Jakina, badaude oraindik folkaren moldetan dirauten kantariak, eta musika ederra eginez iraun ere. Bestalde, musika erroduna aspaldiko kontua da, musika sinfonikoak herri-doinuak birmoldatuz eta landuz sortu dituen emaitza bikainak lekuko. Adierazi nahi dudana ideia hau da: 60. eta 70. hamarkadetan folkak izan zuen arrakasta eta eragina, gaur musika errodunari dagozkiola. Baina, zer ote musika

erroduna delako hori?

Folkak bezala, musika errodunak -etnikoa ere esan ohi zaio- tradizioan du bere oinarria. Baina folkak ez bezala, oinarri horrez gainera musika errodunak beste zenbait molde eta eragin bereganatzen ditu. Hala nola, Kariben sortutako reggae-a, Bob Marley, Peter Tosh eta beste zenbaiten eskutik. Edo flamenkoan errotutako El Ultimo de la Fila, Pata Negra etab.en musika. Edo Irlandako tradizio aberatsari sekulako astindua eman dion The Pogues taldea. Edo Ofra Haza, Yemengo doinuak gure dantzalekutarara ekarri dituena. Edota, azkenik, Afrikatik azken boladan datorkigun uhin indartsua, Youssou N'dour, Fela Kutu, Salif Keita edo Ladysmith Black Mambazo bezalako izenak aitzindari direla.

Musika errodunaren fenomeno

honetan, lehen folkean bezala, balio musikalak modaren morrontzarekin eta merkatal intereseekin nahaspilatzen dira, ohi denez. Baina guzti horren atzean beste zerbaiten adierazpena legoke, alegia, kultura eta herri ezberdinen esistentziarena, sarritan egoera zailean dauden kultura eta herriena. Komunikazio bidez datorren uniformitatearen eta kultur koloniarismoaren aurrean, berezitasunerako eskubidea aldarrikatzen dutenena. Euskaldunok ondo asko ezagutzen dugun auzia, bestalde.

Baina itzul nadin nire arlora eta amai dezadan gaurkoa.


Une batez modaren uztarpetik irtenez gero, ezusteko paradisuak aurki ditzakegu folkean eta musika errodunean. Merezi du gai horretan pixka bat sakontzeak.

Mikel Irizar

ENTZUN GAITUZUE?
BA, ARI GARA!!



MUSIKA TRESNAK - Tfnoa: 79 29 09



LAMIAK

Arrasate Pasealekua, 2, behea
Tfnoa: 79 72 63

OSTARKU DANTZALEKUA

Hezurak astintzeko lekuri aproposena

Urbarri Etorbidea 8 - Tfnoa: 79 84 83

Errezetak

San Blas erroskilak

San Blasetan bedeinkatutako laranja, torta eta janek eztarikoa mina osatzen ei dute. Eta horregatik, dirudienez, ematen zaio torta honi "San Blas torta" izena. Jaterakoan sarritan ezdarri zuloan traba antza egiten du eta eztula eragiten.

San Blasari azpiko orea egiteko osagaiak:

- 400 gramo urun
- 5 arraultze
- 10 gramo azukre
- 100 gramo olio anisa, norberaren gustora.

Gaineko zuria egiteko osagaiak:

- 3 arraultze
- 800 gramo azukre
- litro laurden ur

Orea egiten da lehenengo. Osagai guztiak nahastu, eta erroskila nahiz torta forma emanaz, labean egosten dira 220ºtan.

Ondoren, gaineko zuria prestatzen da. Hiru zuringoak jaso eta nahastu poliki-poliki azukre urarekin. Sutan jari eta irakiten hasten denean 104º hartu dituen seinale; eduki horrela bost bat minututan 109º hartu arte. Honi erderaz "blanquete" izena ematen zaio. Nahikoa izaten da gainetik tortati jartzea, berehalaxe gogortzen da eta.

Zizka-Mizkak

Urtarrilaren bigarren domekako "Diario Vasco"n zetorren bi eta hiru goringotako arraultzak zelan prestatu, samur asko gainera.

Zartaganan olibolio ugari jarri eta hau ondo berotutakoan, bertara arraultze baten zuringoa bota. Zuritzen hasten denean bi nahiz hiru goringo jarri gainean. Ez atera zartaginatik zuringo inguruak gogortzen hasi arte, "puntilatxoak" egin arte.

Modu honetan goringoak bigun-bigun irtengo dira eta platerera ateratzerakoan arraultzok beste modu bateko itxura izango dute.

Morokil Taldea

ORTZI

ERRETEGIA

ANGIOZAR AUZOA

BERGARA, Tfnoa:76 22 68

Eroski Kontsumatzaileen Komitea Informazioa eta Formazioa

Gure bulegoa: Uribe Auzoko Eroski denda



ITSASKI

arrandegia
arrain freskoa
eta

Jaki izoztuak
Uribe Auzoa
Arrasate. 79 98 94

BASABE JATETXEA

Menu eta afariak
Boda eta banketeak

Industrialdea

ARETXABAETA

ARRASATE Press

Bidal iezakiguzu
zure kolaborazioak

CE

ERRASTI KRISTALDEGIA

Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak

Olarte kalea, 47 behea Tfnoak: 79 22 55 79 24 25

Gure jateko ohiturak ezagutzen (I)

Behar ditugun janariak aukeratu eta neurri egokian jenez gero, osasuna zaintzen ari garela inork ez du zalantzan jarriko, gaitzak baztertzeko modu egokia bait da.

Gure ohiturak ezagutzea komeni zaigu, akatsak zuzentzeko eta ondo dauden ohiturekin jarraitzeko; horretarako, orain dela urte batzuk (1984) hemen Arrasaten egindako inkesta izango dugu lagungarri.

Inkesta hau 27-70 urte bitarteko etxeoandreen artean egin zen, haien eritziak ezagutzuz familia guztiaren ohiturak aztertzeko modu egokia zela erabaki bait zen. Beraz, ez da pertsona bakoitzari egindako inkesta, familia osoari baizik. Denerata 70 dira indestatutako familia horiek.

Handik atera ziren emaitzak pixkanaka ikusteko aukera izango dugu.

Normalean gure herrian ez da errejimenik eramaten (%90). Egiten dutenen artean badira batzuk, berek

erabakia hartu ondoren errejimena egiten hasi zirenak; besteak berriz sendagilearen aholkuz. Noizbait pisua jaisteko ahaleginak egin dituzten talde bat ere badago (%30). Erdiak ideia hori laster baztertu zuten. Talde horretatik erdiak sendagileak esan ondoren hasi zuten errejimena.

Nola prestatzen ditugu gure janariak?

Modu ezberdinak erabiltzen ditugu janariak prestatzerakoan lehentasunik ezarri gabe (frijituak, erreta, egosita...). Dena den, %8ak erreta, %22ak frijituta, %10ak gisatuta. Arraina nahiago izaten du frijiturik %53ak, eta %42,2ak beste era batzuetan.

Non egiten ditugu jatorduak?

Kasu gehienetan (%97) jatorduak etxean egiten dira eta 114 familietatik etxetik kanpo pertsona batek bazkalzen du.

Hemen Arrasaten, famili kopurua kontutan izanez, %42ak goizeko

zortziak baino lehen gosaltzen du, eta %45ak bederatziak baino lehen.

Arina edo oso arina da gosaria (%85) gehienentzat (esnea edo kafesnea, gailetak edo ogia lagungarri dutela edo horrelakorik ezer gabe). Beraz, gutxi gosaltzen dela argi dago.

Hamarretakorik ez du eramaten %72ak; hartzen dutenek etxetik kanpo egiten dute jatordu hau eta %11ak fruta jaten du edota hesteki edo ogitartekoa.


Badago erlazio estatistikorik gosaltzeko orduaren eta jaten denaren artean: goizago gosaltzen dutenak izaten dira jatordu honetan ugariago jaten dutenak ere. Gosariaren neurriak ez du, ordea, erlazioirik hamarretakoarekin, baina gehienetan hamarretakoa, gutxi gosaltzen dutenek hartzen dute.

Hurrengoan ere gure ohiturak aztertzen jarraituko dugu.

*Eukeni Olabarrieta
Arantxa Lizaso.*

AKADEMIA BASTIDA

INFORMATIKA
KONTABILITATEA
MEKANOGRAFIA
TAKIGRAFIA



Helbide berria: Ferrerías 44. Behea. Tfnoa.793216

ETXEBIZITZAK

- Pisua hartu nahi da errentan. Tfnoa. 799525 (gauzez)
- Neska ingelesak pisuan bizi nahi luke beste batzuekin Arrasaten. Tfnoa. 762575 (Bergara). Goizez deitu (DENISE).
- Neskak pisuak nahi luke Arrasate edo inguruetan beste batzuekin bizitzeko. Tfnoa. 781189 (gauzez).
- Merkataritzarako lokala hartu nahi da errentan. Nahiago herriaren erdigunean. 100 m². Tfnoak. 794569—798821.
- Merkataritzarako lokala eskualdatu nahi da. 38m². Uribe Auzoan. Tfnoa. 790870.
- Merkataritzarako lokala eskualdatu nahi da Uribe Auzoan. Tfnoa. 798637.
- Pisua salgai Uribe Auzoan. 4 logela, egongela, 2 bainugela, garajea eta tras-teregia. Tfnoa. 793612.
- Erdiko kalean pisua salgai (9—2^o). 3 logela, sukaldea, bainugela. Tfnoa. 796765.
- Merkataritzako lokala saldu edo errentan eman nahi da. 37m²; Kalealdea, 13. Tfnoa. 798350
- Saldu edo errentan eman nahi da 1. pisua, herriaren erdialdean, apartamentu, estudio, bulego, kontsultategi...izateko pres-tatua. (eta atikoa, etxe berean). Tfnoa. 795125
- Pisua salgai, altzariekin, Makatzenan (5—4^o A) Tfnoa. 799357
- Garage bat errentan eman nahi da. Urribarrin, kotxe birentzako lekua du. Urtarrilak 20 baino lehen.

LANA

- Deba Beheko enpresa batek Marke-ting Saileko Zuzendari-postua bete

nahi du. Interesatuak, 57. postakutxara bidali behar dute beren curriculumak eskuz idatzita, bertan 17 DM erreferentzia eza-rriz.

- Deba Garaiko enpresa batek 8 lanpostu bete nahi ditu. Interesatuak Arrasateko INEMeko bulegoetara (Garaibai, 3) joan behar dute.
- Eibarko Udalak Administrazio-postu bat bete nahi du, oposizio-lehiaketan bidez. Oposizio-lehiaketa arautzen duten oina-riak 1988ko Azaroaren 14ean argitaratu ziren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (223. zka.). Eskeraerak aurkezteko epea, 1988ko Otsailaren 10era arte, Eibarko Udaletxean.
- Eroski Koop. E.ak bi Publizitate-Teknikari behar ditu. Interesatuak, Urtar-riaren 19a baino lehenago, beren cu-riculumak eta telefonoa bidali behar di-tuzte. Helbidea: Eroski Koop. E. (Giza-Baliabide Saila), San Agustin Auzoa, 48230-Elorrio.
- Euskal Herriko Komunitate Autonomoko Administrazioak Goimailako Teknika-riak behar ditu ondoko lanpostu hauek be-tetzeko: Zerbitzu-Ikustatzailea; Giza-Baliabideak; Informazio Sanitarioa; Planifikazio Ekonomikoa; Gaixoen Aten-tzio-Zerbitzua. Eskari-orriak eta gaine-rako informazioa: H.A.E.E.ren Egoitza, Unibertsitate Zaharra, Oñati.
- Hydraulix Ring, S.L.ak bi lanpostu hauek bete nahi ditu Elgoibarren: Fabrikazio-teknikaria eta montadorea. Interesatuak deitu 74 21 30 telefonora, Solano Jaunagatik galdetuz.
- Igeltseroak behar dira: autonomo kontratatuak. Soldata elkarrekin erabakitzeak. Interesatuak deitu 71 74 61 tfnora.

- Umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko neska bat behar da. Tfnoa: 79 35 44.

SALEROSKETAK

- Peugeot 205 SR salgai. 86ko Uztaile-koa, Tfnoa: 945-44 53 93 Ana.
- Eskiak saltzen ditut prezio onean. Deitu 79 09 00 (Jose Felix)
- Ia estranaturik gabeko larruzko jaka saltzen dut. Peio. Tfnoa.: 79 26 62

IKASTAROAK

- C LENGOAIA Arrasateko IMI zentroan, Otsailaren 6tik 17, Arratsaldeko 4etatik 8etara; Programa: C Lengoiaren deskribapena, motak, ordenadoreak, adierazpenak, fluxuaren kontrol-sen-tentziak, C funtzioak eta egiturak, sarre-rak eta irteerak.
- Informatika: sarrera. Arrasateko IMI zentroan, Urtarrilaren 30etik Otsailaren 3ra, arratsaldeko 4etatik 8etara. Pro-grama: informatika sarrera, testu prozes-a-dorea, orri elektronikoa eta datu basea.
- Adimen artifiziala eta sistema espertoak. Programaren laburpena: Adimen artifi-ziala, sarrera, teknikak eta lengoaiak.
- Sistema espertoak: diseinu, praktikak, di-agnostikorako sistema espertoak zelula malguetan. Informazioa eta izen ematea Arrasateko Ikerlan Kooperatiban. Tfnoa.: 79 48 11.
- Ikastaroa UNEDen. Bergarako UNEDeko historia-departamentuak antolatuta, ikastaro bat izango da bertan "La ciudad y la tierra prometida" gaiari buruz, Urtarri-laren 28tik Martxoaren erdialdera.



ARRASATEN HILAK

Alberto Madinabeitia Arana
36 urte
Urtarrilaren 30ean hil zen

**ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA
TESTUA IDATZI ETA BIDALI GURE BULEGOETARA**

TESTUA: _____

Zehar kale estalia 1, 1b 20. 500 ARRASATE Tfnoa 797164

Izarrik gabeko gaua

II. Kapitulu.

Egoera larria zen oso. Ez zebilen ura izoztea galeraziko zuen hego-haize epelik; eguzkiak berarekin eramana zuen. Suak etengabe ziharduen egurra erretzen etxe guztietan. Eta hotza. Sekulako hotza.

Itxaropena aletegiak ahitu ahala urrunduz zihoan. Eguzkirik gabe ez zen udaberririk izango; ez zen inongo landararik emeko; ez zen inolako uztarik bildu ahal izango. Azkenean, urduritasun eta etxeetan gordeta iraun beharrak, Oltzatarren barneak leherrarazi zituen.

Anitz ordu ematen zituzten gizonek bertako ostatu bakarrean eta egunero, guztiak elkartzen zirenean, irtenbide baten gose zen batzar ttipi bati ematen zitzaion hasiera. Halako batean kanporatu zen errotariarengandik Oltzatarrek Sarobera eramango zituen exodoaren ideia, aho batez onartua izan zena. Inoiz baino gehiago, inguru guzti haien jabe zen Sarobeko Jaun Kuntia babesa behar zuten.

Saroben beldurra zen nagusi. Bazeukaten Oltzako bailararen desagarketaren berri eta Oltzatarrik berriro bizirik aurkitzea ez zuten espero. Poza eta lasaitasun pittin bat izan zen, beraz. Oltzatarren ustaegabeko agerketak ekarri zuena.

Jaun Kuntia gertatzen ari zenaren berri emateko xedez mezulari andana bat izan zen hautatua, egun erdi bat ibiltzen eman beharko zuena gaztelurainoko bidea betetzeko, eta beste hainbeste bueltatzeko.

Gizon itzala zen Jaun Kuntia. Haundia oso, indartsua; gudari trebea, ziuraski. Izala, bai, baina zuzena. Helduak ziren bere entzuketara auzi bitxi zein izugarri haren marmarioak. Jaramonik ez zien egin, ordea, populuaren sinesteriaren fruitu besterik ez zirelakoan. Aitzitik, oltzatar mezularien aho izutuengatik jasotzean, bere itxura berez itzala zeharo ilundu zen, haserrearen beltzez.

Bertan pasa zuten gaua eta, biharamunean bertan, Jaun Kuntia (zaldiz, gerrarako prestatua) eta bere jarraitzaile armatuekin batera herriratu zen. Jaun Kuntia bele bat zeraman sorbaldan, bertakoan esamesek ziotenez edonora laguntzen zuena; itxua omen zen eta inork ez zekien ehizarako alkoia baino nahiago izatearen zergaitia. Agian Jaun Kuntia berak bezain itxura itzala zuelako, sorginkeria batetik sortua zirudien eta.

Mezulariak sartu ziren lehenak Sarobeko plazan. Han zeuden zai herritar guztiak. Ez zuten espero, baina, ikuslegoaren artean ikusi zutena ikustean bihotz-taupadak ia eten zitzaizkien. Seko gelditu ziren, aho bete hortz, eta begiak ontziak bailiren zabalik. Luma, mahatsak ubeltzen ari zireneko garaian madarikazioa ekarri zuen agurea, han zen, herritarrek atxilotua. Sarobeko bazter izkuturen batetan gordetzen zuen orain bere aterpea, Oltza utzi zuenetik. Eta ulertu nahi izan zuten agian arrazoi horrexegatik agertu zela behin hain misteriotsu eta, era berean, buru makur, ohituta bezala, aldegitiko agindua bete. Apika ez zela hura betirako iluntasunera kondenatua zegoen lehenengo inguru. Eta akaso ez zela ere azkena izanen.

Sarobetarrek ez zuten, ordea, hurrengoak izateko batere gogorik.

Epaiketa bitxi bat suertatu zen, Jaun Kuntia sententzia trinkoa besterik izan ez zuena. Ez zen aurkako oihurik altxatu. Izan ere, sutan zeuden bihotzak, gori-gori mendeku gogoa; deabrukeria hura nonbaitetik moztu beharra zegoen.

Abiatu ziren guztiak (hilketa bat edozein modutan izanda ere, ikusgarri ez zela uste zutenak salbu) bi bailaren arteko mugari diren haitz-gailurretarrantz; hauen giblean, Oltzako zeru ilunak Jaun Kuntia begirada hotza erakartzen zuten etengabe. Dragoi baten aurka borrokatzera doanaren begirada tinkoa zuen.

Gailurretariko batek ebakidura sakon bat zuen, Oltza aldera ematen zuena. Amildegiaren ertzak infernuko atea zirudien, bizitzaren argitasuna sar ez zedin zainduz. Hemen argia eta hor, ezerezko muga ikustezin horren ostean, gauaren iluna. Ikuskizuna beldurreko isilune batek estaltzen zuen.

Ez zuen ezer apartekorik eskaini ejekuzioak. Edozein gizon hiltzen den bezelaxe joan zitzaion agurea; bere ahoak ez zuen intziririk askatu, oster, geziek gorputz osoa zitzatu ziotenean. Betirako iluntasunera amildu zen, bere sorginkerian heriotza aurkitzera.

Itzuli ziren herrira, Jaun Kuntia aitzinean, bere gudariak jarraian eta populua ondoren. Aurrekaldera baino, atzera jotzen zuten begiradek maizago, gertatuko zenaren jakinminaz.

Sarobeko plazan jada, Jaun Kuntia begi zorrotzek mugaz harutza apuntatzen zuten, Oltzaldeko zeru ilunera, begirada soilarekin enkantua deuseztatu nahian edo. Arratsa zen.

Egunguentian, miraria espero bazen ere, infernu beretik omen zetorren maltzurkeria hari, amore eman behar izan zioten. Errotariak oraingoan uste ez bezala, ez zen Oltzaran argia itzuli. Etsipeneko laino batek estaltzen zuen inguru.

Amorrua zerion Jaun Kuntia. Ukabil eta beso zailduak dardarka ari zitzaizkion. Bele itxuak, ostatuko lehiotik, karraks ozen bat luzatu zuen, egun berria iragartzen duen oilarraren antzera, argitasun piztua asmatuko balu bezala.

Beste bat askatu zuen ondoren, ozenagoa, belarrietara min egiteko gai zena, eta airea hartu, igo, zeruko hodeiak gainditzera. Jaun Kuntia ezin zezakeen sinetsi belearen hegaldi pausatua eskutik hedatzen ari zen estalki iluna. Ilunpeak haran osoa irentsi zuen, pizti deabrukumearen karrasken oihartzunek farre-algara baten doinua eratzten zuten artean.

P. Mokordo

Jaialdia Aretxabaletan PANTXO eta PELLO



Eguna: Otsailak 11, Larunbata

Ordua: 11etan

Aretxabaletako-kirol etxean

Prezioa: 300 pta

Antolatzailea BEINKE

■ **Gerra telebistan** Buenos Airesko koartel militarren asaltoa zela eta, aukera paregabea izan genuen telebistari esker, gerraren -kasu honetan guduskaren-aurpegi negargarria ikusteko. Gorpu erreak, azken orduko berpizte-ahalegin dramatikoak, leherketak... Gure gazte denborako testuliburuak eta baita garai bateko -eta gaur egungo, esango nuke nik- egunkari eta irrati-albistegiak ere, gogoratu besterik ez dituzue egin behar, gerrari ematen zaion tratamendu mitikoaz jabetzeko. Telebista ailegatu arte, gudaokiak balentiarik sineskaitzenen eszenatoki apartekoak ziren. Kazetari edo idazlearen luma trebeak nahikoa ziren gure heroek zuzenean jainkoen olinpora bidaltzeko.

Orain, berriz, telebistaren begia sartu da eta mistizismo guzti hori hankaz gora jaurtiki du. Gure egongeletako pantailetan heriotza, zentzugabekeria eta odola baino ez ditugu ikusten. Estatu Batuek, neurri batean behintzat, beren etxeetako egongelatan galdu zuten Vietnamgo gerra. Israeli Libanoko guduzelaitan irabazitako garai-pen nabarmena porrot izugarria bihurtu zitzaion munduko eritzi publikoaren begietan, telebistaren kausaz.

Kostatzen ari zaigu horretaz jabetzea, baina iruditzen zait hainbeste gaitzesten dugun telebista poliki-poliki gure ingurua eta mundua ikusteko eta ulertzeko dugun modua aldatzen ari dela. Aipatu adibideak kasu.

■ **Euskadi Irratia ala Donostia Irratia?** Batzuetan zalantza hori etortzen zait burura. Aurtengo San Sebastian egunean, adibidez. Goizeko informatiboen orduan, gosaldur bitartean, "La Taberna del Puerto" jarri ziguten. Beste irratiak bien bitartean, George Bushen kargu-hartzeaz eta Algeriako mahai-az informatzen ari ziren. Ordubatetako informatiboan ere paso egin zuten, Donostiako Herri Irratikoek berea beti bezala ematen zuten bitartean. Eta horrela ia egun osoa. Donostiako langileek egun horretan jai hartzeari ondo deritzot, baina Euskadi Irrati gure Irrati Nazionala bada, Jose Mari Iriondok hain ozenki aldarrikatzen duen bezala, ez al dauka jenderik Bilbon edo beste edonon egun horretako programazioaren ardura hartzeko moduan?

Joxe Aranzabal



gusto baduzu

■ **"Dominoren Teoria"** ("Domino Principle", 1977), larunbatean, hilak 4ean proiektatuko da.

Zuzendaria: Stanley Kramer.

Antzezleak: Gene Hackman, Candice Bergen, Richard Widmark.

Roy Tucker, bere kapitaina hiltzeagatik gartzelaraturik dago. Bere askatasunaren truke misio arriskutsu bat bete beharko du: pertsonai ospetsu bat hiltzea, hain zuen ere.

■ **Laino guztien azpitik.** Astelehenean, hilak 6an; 21.55an. Amatiñok, oraingo honetan, honako pertsonai hauek gonbidatu ditu:

Maite Zufiiga; Mariano Izeta, Elizondoko ihauteriei buruz mintzatuko dena; Donostiako Ferian parte hartzen duten hiru antzerki talde: Geroa, Ttanttaka eta Bederen 1, hain zuzen ere eta, azkenik, Elhuyarrekoe te artifiziala aurkeztuko digute. Javier Krahe izango dugu abesten.

■ **Hemen eta munduan.** Ostegunean, hilak 9; 21,00an. Hiru erreportai interesgarri izango dugu ikusgai: "Etxekoandreen sindromea", "Yogi hartzaren marrazki bizidunak nola egiten diren" eta "Ekialdeko Berlin marginala".

Beti bezala, Aintzane Bolinaga eta Estepan Aldamiz Etxebarriaren eskutik.

OSTADAR IRRATIA (102 F.M)

Ostirala

3,30 eta 8,30 Errota-zahar (Ipuinak)
4 eta 8,30 Batutakin (Musika klasiko)

Azteazkena

4 eta 8 Xiru-liru-li (Haur kantak)

Osteguna

1 eta 8 Irratia-gelan (Gelako grabaketak).

SORGINA IRRATIA (105 F.M)

TFNOA: 79 82 68

Ostirala

7-9 KK Profe puag

7-9 Piramyd

10-11,30 Fermin Crosby-ren ordua

11,30-12,30 Beltza blues klub

Larunbata

8-9 Onda katxondoa

9-11 Dana ondo dabil

11-1 Banpiroak

Igandea

10-11 Puuag!!! (Musika eta kontra-informazioa)

Asteartea

7-8 A ze hiru hanka aulki batentzat

8-10 Pufa kalufa

10-11 Bai zera!

11-12 Irrintzi

Osteguna

1-2 Gaurko bazkaria

7-8 Exterminioa helburu

8-9 Mara-mara (Emakumeen Asanblada)

9-10 Itxungitako dragoie (AED)

10-11 Amen Jesus!

11-12 Gau erdiko klasikoak

ZUTABEAK JAUSI DIRA

Beheko zutabeak goiko koadroan behar bezala ipiniz, esaldi oso oso ezagun bat agertuko zaizu.

									E										T
									E										
T												A							
T	Z		H	A	U	N	T	A	I	E	Z		B		K	D	Z		
Z	E		A	Z	L	T		N		A	G	D	E	I	A	T	K		
K	A	T	E	N		I		S	N	Z	E	E	E	D	K	U			
			T	A	K	O	,	K		E	T	L	I	D	N	A	E	E	
E	G	T	K	N	T	Z		I		Z	H	E	E	D	I	U			
	B	I	T	I	K	O	K	A	E		L		Z		A				

Soluzioak: 19. orrialdean

P. Mokordo

H o r o s k o p o a



ARIES
(Martxoaren 21etik
Apirilaren 20ra)

Haratusteak eguneroko arazoak ahazteko aukera ematen dizu. Desagertzen ez badira ere, agian ikuspuntu berriak sortuko zaizkizu. Ondo pasa!



TAURUS
(Apirilaren 21etik
Maiatzaren 20ra)

Zenuen arazo hori konpondu da baina ez zaude gustora oraindik. Agian zure bizi-modua aztertzeke aprobeitza dezakezu egoera hau. Baina mozorroa kendu beharko duzu.



GEMINI
(Maiatzaren 21etik
Ekainaren 21era)

Aspalditik ez zinela hain lasai sentitzen. Aprobeitxatu egoera hau azken momentu arte, momentu onek gutxi irauten dute eta.



CANCER
(Ekainaren 22etik
Uztailaren 22ra)

Egoera onean zaude bidai bat egiteko edo zure inguruetik behintzat ateratzeko egun batzuk. Baina ez ahaztu betebeharrak, ez zaude oporretan oraindik.




LEO
(Uztailaren 23tik
Abuztuaren 23ra)

Asko aurreratu duzu baina ez duzu honekin konforme egon behar. Zure buruari gehiago eskatu behar diozu, gauza zara azkeneraino heldzeko eta.



VIRGO
(Abuztuaren 24etik
Irailaren 23ra)

Lagun horren konfidantza galtzeaz zaude. Azaldu beharko diozu egia eta zintzo jokatu hemendik aurrera. Bestalde, haizea hartzea komeniko litzaizuke.



LIBRA
(Irailaren 24etik
Urriaren 23ra)

Nahiz eta azken bolada hauetan zalantzetan ibili, ondo egin duzu erabaki hori harterakoan. Ez zara damutuko eta laister ikusiko dituzu honen fruituak.



SCORPIO
(Urriaren 24etik
Azaroaren 22ra)

Datorren astean aspaldiko lagun batekin topo egingo duzu, baina ez izan berarekin beste jende guztiarekin zaren bezain serioa. Irribarre egitea ona da.



SAGITARIUS
(Azaroaren 23tik
Abenduaren 21era)

Ez izan hain beldurti, zezena adarretatik hartu behar duzu. Edozein aitzakiaz baliatzen jarraituz gero, inoiz ez diozu ekingo benetan nahi duzunari.




CAPRICORN
(Abenduaren 22tik
Urtarrilaren 20ra)

Aste ona aurrean duzuna. Lanak baten ordua- satisfakzio dexente emango dizu, baita ospakizunek ere. Egin ezazu proba azareko jokoekin, astroak zure alde dituzu eta.



AQUARIUS
(Urtarrilaren 21etik
Otsailaren 19ra)

Ez utzi biharko gaur egin dezakezuna. Beraz, hasi dagokizuna egiten eta bota zure ondotik nagikeria hori. Bada garaia horretaz serioz pentsatzeko.



PISCIS
(Otsailaren 20tik
Martxoaren 20ra)

Ados ez egotea ez da nahiko, proposatu zerbait. Ezkortasun horrek ez dizu onik egiten, ezta ingurukoiei. Beltzaz aparte badago beste kolorerik ere

☞ Zenbat bazkide dituen IMI zentroak?

IMI zentroak, Urtarrilaren leko datuz, 3.133 bazkide zituen, hauetarik %50 ikasleak, %26,60 langileak, %16 langabetuak, %2 irakasleak, %1,90 errepresentanteak eta %1 profesio liberalekoak zirelarik.

☞ Zenbat eta zertan erabili den 1988 urtean?

1988. urtean 1.939 pertsonak erabili du IMI zentroa, honako gai hauetan jardun direlarik:

- Basic %9,54
- Mikroprozesatzaileak %3,87
- Beste hizkuntzak %28,93

- Sistema operatiboak %8,16
- Informatika eta programazio sarrera %5,31
- Aplikazioak %29,86
- Elektronika %0,67
- Instrumentazioak %0,98
- CAD/CAM %1,65
- Beste batzuk %10,86

Iharduera-moduari dagokionez, sailkapena honelakoxea da:

- Auto-ikasketak %72,79
- Bideozko ikastaldiak %8,10
- Irakasleekin ikastaldiak %16,16
- Beste batzuk %3,42

☞ Zer ikastaldi eman diren 1988 urtean eta zenbat jendek hartu duen parte?

1988ko urtean 11 ikastaldi eta mintegi bat eman dira Arrasateko IMI zentroan, beraietan guztira 169 pertsonak parte hartu dutelarik. Emandako kurtsoak hauek izan dira:

- DBASE III-era sarrera
- Informatikara sarrera
- C Hizkuntzan programazioa
- CIM
- DBASE III-an programazioa
- CADDY
- Informatikara sarrera
- OPEN ACCESS-era sarrera
- Sare lokaletara sarrera
- 68000 mikropozesatzailea
- WORDPERFECT
- PAGEMAKER



Bainugela erakusketa
Zarugalde Kalea, 52
Tfnoa: 79 99 42

Sukalde erakusketa
Udala Plaza, z/g
Tfnoa: 79 00 42

iKER

FAGOR



SUKALDE LILURAGARRIAK

ARRASATE